

BERRI OROKORRAK

2025eko ekainaren 6an 34. zenbakia

Matrikulazio-prozesua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren matrikulazio-prozesua arautzeko azkeneko dekretua, duela hiru urte argitaratu zen eta bere helburua segregazioarekin bukatzekoa zela adierazi zuen Hezkuntza Sailak. Dekretu horrek

albo-kalte ugari izan ditu eta ez du segregazioarekin bukatzeko balio izan. Udarregiren kasuan bi familia geratu dira itxaron zerrendan plaza nahikoak izanik ere.

Horregatik, atzo azken urteetako matrikulazio-prozesuen balorazioa eta Ikastolen Elkartetik egiten ditugun proposamenak aurkezteko agerraldia egin zen. Horren harira, gure hausnarketa eta planteamenduak jasotzen dituen [prentsa oharra](#) plazaratzen dizuegu.



Ekaineko ordutegia

DBHko ikasleek, datorren ostiraletik, ekainaren 13a, eta 20ra bitarte 8:25etik 12:30era izango dituzte eskolak.



2025/2026 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio-zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egokitzen dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, [galdetegi hau](#) **ekainaren 20a** baino lehen erantzun beharko duzue.



Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.

Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 ordutegian Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 20a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 ordutegian zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainaren 20rako**.

Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 20a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.

Bertso-eskola 2025/2026

Aurten ere, 2025/26 ikasturterako guraso talde baten eskutik, bertsolaritza-eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik-13:30era eta 13:30etik 14:30era (Urritik maiatzera)

Urte osoko kuota: 65 euro

Bertsolaria: Lierni Rekondo

Kontaktua: 608 768 539

Irakurketa-solasaldia

Ekainaren 12an, osteguna, 15:30ean, Sutegi Liburutegian, [IRAKURKETA-SOLASALDIA](#) izango da 11 urtetik gorako gaztetxoentzat (DBH barne). Mintzagai izango dugun liburua: Idoia Garzes lasartearraren KUKUAREN KANTUA.

Liburuak jada eskuragarri ditugu Liburutegian.

Iraupena: ordu bat.



HAUR HEZKUNTZA

Ikastola-eguna

Bihar Ikastolaren eguna ospatuko dugu.

Eguerdiko 12:15ean HH-kook gure emanaldia eskainiko dugu Mikel Laboa plazan (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian egingo genuke gure emanaldia eta haurrak gure geletan bertan jasoko genituzke).


Haurrak 12:00etan jasoko ditugu herriko gunehauetan:

- HH 3koak: Mikel Laboa plazan, inmobiliaria ondoan.
- HH 4koak: Laboral kutxaren ondoan.
- HH 5koak: Kutxabanken ondoan.

Egun horretan haurrak honela jantzita ekarri behar dituzue:

- HH 3koak: kamixeta HORIZ
- HH 4koak: kamixeta TXURIZ
- HH 5ekoak: kamixeta URDINEZ

Zalantzarik baduzue, tutoreei galdetu.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2025/2026

ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkarte eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkarte liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hori erabiltzeko arrazoiak:

Guraso elkarte



- 1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...
- 2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburu zati bat ordaintzen delako.
- 3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, usurbil@ikastola.eus helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea ekainaren 13an amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko litzaioke ikastolari.

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorarazten da, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo dira.**

Ekainaren 13rako parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €-ko fidantza kobratuko zaie ekainaren 16an** eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

Ikastola eguneko jolasak

Gogoratu, bihar ikastola eguna ospatuko dugula. Goizean zehar ikasleen jolasak izango ditugu. Ikasleek ikastolako sarrera nagusira (errepide aldera) agertu beharko dute ondorengo orduan:



- **LH 1, 2 eta 3. mailako ikasleak 9:45ean sarrera nagusian.**
- **LH 4, 5 eta 6. mailako ikasleak 11:00etan sarrera nagusian.**

1, 2 eta 3. mailako ikasleak amaitzean, **11:00etan kiroldegi aurrean jasoko** dituzue.

Bestetik, egokitu zaien zenbakiaren arabera (asteaz zehar tutoreek jakinaraziko die) koloredun kamisetarekin etortzera gonbidatzen ditugu:

1 zenbakia edo taldea: **kamiseta beltza.**

2 zenbakia edo taldea: **kamiseta txuria.**

3 zenbakia edo taldea: **kamiseta urdina.**

4 zenbakia edo taldea: **kamiseta berdea.**

Irteera LH 6. maila

Ekainak 9, 10 eta 11, LH 6. mailakoak, ikasturte amaierako bidaia egiteko asmoz, Zuhatzara joango gara. Armonian, naturaz eta kirolaz gozatzeko aukera paregabea izango dugularik. Asteazkenean, ekainak 11, itzulera egunean, Gamarrako igerilekuez gozatzeko aukera ere izango dugu.



LH3ko irteeraren kobrantza

GAUR, Irisarrilandera egindako irteera ordaintzen amaitzeko falta den zatiaren kobrantza egingo da.

Irisarrilandeko egonaldiaren azken zatia: 36 € (orotara 86 € kostua izan du egonaldiak).

Autobusaren joan-etorria: 7,10 €

Denera **43,10 €** kobratuko da.



LH 5 eta 6-ko gurasoei zuzenduta: sexu-heziketa

LH5 eta LH6ko ikasleek jaso duten Sexu-heziketako ikastaroa dela eta, LH5 eta LH6ko gurasoei saio bat eskainiko zaizue gai horren inguruan ikasleekin jorratu dena azaltzeko. Bertan, guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera ere izango duzue.

Data: Ekainak 9, astelehena

Ordua: 17:00etan

Lekua: Agerialdeko 3. solairuan



DBH

Ez dago berririk.